**MOZIO PROPOSAMENA, 2023KO MARTXOAN ARRASATEKO UDALEKO OSOKO BILKURA ARRUNTARI AURKEZTEKO, ZERIKUSIA DUENA "ESENCIALES"EN LEGEGINTZAKO HERRI EKIMENAREKIN, ESPAINIAKO ESTATUAN PERTSONA MIGRATZAILEEN EZOHIKO EGOERA ERREGULARIZATZEKO**

**Zioen azalpena**

Estimazio berrienen arabera, Espainiako estatuan 500.000 migratzaile bizi dira administrazio egoera irregularrean, eta horietatik heren bat adingabeak izango lirateke. Espainian bizileku bat izateko sistema, 4/2000 Lege Organikoan jasoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei eta askatasunei buruzkoa, edo atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, ezaguna dena atzerritarrei buruzko lege gisa, ez da nahikoa, mugatua da eta ez dator bat Espainiako Estatuaren lurraldean bizi eta lan egiten duten migratzaileen oraingo errealitatearekin. Eta hori hala da, alde batetik, bizilekua izateko irizpideak oso murriztaileak direlako, eta, bestetik, ezarritako administrazio prozedura motela eta burokratikoa delako, eta diskrezionalitate tarte handia duelako baimenak emateko edo berritzeko orduan. Dinamika horrek ahulezia eta desinformazio espiral bat sortzen du, gizarte bazterketa areagotzen duena eta gizarte osoan eragiten duena. Hortaz, ezinbestekotzat jotzen dugu mekanismo batzuk aurkitzea, pertsona horiek ikusezintasun egoeratik irten ahal izan dezaten, ikusezinak baitira migrazio egoera irregular horren ondorioz.

**Zer arrazoi dagoen ezohiko erregularizazio bat justifikatzeko.**

Lehenik eta behin, gizaki bakoitzaren oinarrizko eskubideak errespetatzea. Irregulartasunak dakar lan esplotazioa, ikusezin bihurtzea erakundeen aurrean eta babesgabe egotea legearen aurrean.

Bigarrenik, milioi erdi pertsona inguru dago erakundeen esparrutik kanpo eta zerbitzu publikoen plangintzatik kanpo, eta horrek dakar gobernantza publikoaren gabezia bat, lehenbailehen zuzendu beharrekoa. Azkenik, ekarpen ekonomiko eta fiskal handi bat galtzen da gizarte osoarentzat. Alde batetik, irregulartasun horrek migratzaile askori ez die uzten duintasunez erabiltzen beren gaitasunak, funtsezkoak gizartea sostengatzeko, eta bultzatzen ditu ezkutuko ekonomiara. Erregularizazio batek azkar eta modu eraginkor batean azaleratuko luke haien zuzeneko zergen potentzial handia eta enplegatuek eta enplegatzaileek Gizarte Segurantzaren sistemarentzako kontribuzioen potentzial handia. Migrazio politikak ezin du jarraitu zatituta egoten errealitate sozioekonomikotik eta egunez egun gizartea osatzen eta eraikitzen duten pertsonetatik. Ezohiko erregularizazioari esker, Espainiako Estatuan bizi diren migratzaile guztiak ikusarazi ahal izango dira. Abiapuntu gisa, konpentsatzea haien desberdintasunak, eta, aldi berean, berma-

tzea haien lan eskubideak berdintasun baldintzetan, gehiegikeria eta esplotazio egoerak gutxituz. Ohiko mekanismo bat da herrialde askotan, eta Espainian ere bai. Ezohiko erregularizazio mekanismo hori herrialde askok erabili dute. Adibidez, Europar Batasunean, 1996-2008 aldian, 43 erregularizazio egin dira 17 estatu kidetan. Berrienak Portugalen eta Italian egin dira, 2022an, COVID-19aren pandemia betean. Erantzun hori babesten du Nazio Batuetako migratzaileen giza eskubideen errelatore bereziak. Espainiako estatuan, sei erregularizazio prozesu izan dira 1978az geroztik. Lau prozesu Alderdi Sozialistaren gobernupean eta bi Alderdi Popularraren gobernupean. Proposamen bat legeari lotua, eta koherentea nazioarteko konpromisoekin. Proposamen horrek aldatzen du artikulu bakar batean 4/2000 Lege Organikoaren lehenengo xedapen iragankorra. Xedapen iragankor horrek ez du izaera organikorik eta, beraz, legegintzako herri ekimen batek aldatu dezake. Jatorrizko xedapen iragankorrak agintzen zion gobernuari ezohiko erregularizazio baterako prozedura bat ezartzeko, 239/2000 Errege Dekretuan jasoa.

Aldaketa proposamenak jatorrizko testua mantentzen du, eta aldi baterakoa izaten jarraitzen du, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio ezohiko erregularizazio prozedura berri bat egiteko, eta datak baino ez ditu aldatzen. Azkenik, komeni da azpimarratzea, tradizioz ezohiko erregularizazioak egin badira ere arau aldaketen ondorioz, ez dagoela lege agindurik beste arrazoi batzuengatik erregularizatzea eragozten duenik. Gainera, proposamen hori oso lotuta dago Espainiako Estatuak hitzemanda dituen nazioarteko akordioekin eta ekimenekin. Horietan sartzen da Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, zehazki haren 10. helburua, Mundu Ituna migrazio seguru, ordenatu eta erregular baten alde. Migrazioari eta asiloari buruzko Europako Itunaz gain. Tresna horri dagokionez, azpimarratu behar da Europar Batasuneko Barne Komisarioak adierazi zuela, Europarlamentuari egindako galdera bati erantzunez, ukatu zuen itun horrek migratzaileak erregularizatzea eragozten duela, eta aipatu zuen “erregularizazioa erantzun politiko egokia izan daitekeela eta EBk bere estatu kideen subiranotasuna aitortzen duela, beren irizpideen eta eskumenen arabera pertsona migratzaileen erregularizazioak erabakitzeko”.

Horregatik guztiagatik, Arrasateko Udaleko Osoko Bilkurak proposatzen du erabaki hauek hartzea:

LEHENA. Babestea "RegularizaciónYa" izeneko pertsona migratzaileen mugimenduaren Legegintzako Herri Ekimenaren kanpaina, Espainiako Estatuan pertsona migratzaileen ezohiko erregularizazioa lortzeko.

BIGARRENA. Lege proposamenaren testu artikulatu hau babestea. EZOHIKO ERREGULARIZAZIOA EZARTZEN DUEN LEGEA, ADMINISTRAZIO EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN ATZERRIKO PERTSONENTZAT. Artikulu bakarra: Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubideei eta Askatasunei buruz eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruz, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren lehen xedapen iragankorra aldatzea. Honela idatzita: “Lehen xedapen iragankorra. Espainian dauden atzerritarrak erregularizatzea. Gobernuak, Errege Dekretu baten bidez, prozedura bat ezarriko du, 6 hileko epean, 2021eko azaroaren 1a baino lehen Espainiako Estatuaren lurraldean dauden

atzerritarrak erregularizatzeko".

HIRUGARRENA. Osoko Bilkuraren erabakia helaraztea RegularizacionYa Estatu Mugimenduari.

LAUGARRENA. Osoko Bilkuraren erabakia helaraztea Diputatuen Kongresuko lehendakariari.

BOSGARRENA. Osoko Bilkuraren erabakia helaraztea EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari, eta eskatzea zabaldu dezala udalen artean, udalek kanpaina babestu dezaten.

Eta hala jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko, idatzi hau sinatzen dut, aginduz eta ontzat emanez.

Amerika elkartea.

**PROPUESTA DE MOCIÓN AL PLENO ORDINARIO MUNICIPAL DE ARRASATE DEL MES DE MARZO DE 2023 RELACIONADA CON LA DE INICIATIVA LEGISLATIVA POPULAR (ILP) "ESENCIALES" PARA UNA REGULARIZACIÓN EXTRAORDINARIA DE PERSONAS MIGRANTES EN EL ESTADO ESPAÑOL**

**Exposición de motivos**

De acuerdo con las estimaciones más recientes, en el Estado español viven 500.000 personas migrantes en condición administrativa irregular, de las cuales una tercera parte serían menores de edad. El sistema de acceso a la residencia contemplado en la LO 4/2000, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España o su integración social, más conocida como ley de extranjería, resulta insuficiente, limitado y no se ajusta a larealidad actual de las personas migrantes que viven y trabajan en territorio del Estado español. Esto debido a que, por un lado, los criterios de acceso a la residencia son altamente restrictivos, y por otro, el procedimiento administrativo implementado es lento, burocrático y cuenta con un elevado margen de discrecionalidad a la hora de conceder las autorizaciones o su renovación. Esta dinámica genera un espiral de vulnerabilidad y desinformación que aumenta la exclusión social e impacta en el conjunto de la sociedad. Por lo tanto, consideramos imprescindible encontrar mecanismos que garanticen que estas personas puedan salir de la situación de invisibilidad a consecuencia de su status migratorio irregular.

**Razones que justifican una regularización extraordinaria.**

En primer lugar, el respeto a los derechos fundamentales de cada ser humano. La irregularidad supone una condena a la explotación laboral, la invisibilidad ante las instituciones y la desprotección legal.

En segundo lugar, la existencia de cerca de medio millón de personas fuera del radar de las instituciones y de la planificación de los servicios públicos, supone un déficit de gobernanza pública que es urgente corregir. Finalmente, la pérdida de una gran aportación económica y fiscal para el conjunto de la sociedad. Por un lado, la irregularidad impide a muchos migrantes contribuir dignamente con capacidades que son esenciales para el sostenimiento de la sociedad, abocándolos a la economía sumergida. Una regularización afloraría de una manera rápida y eficiente el gran potencial de sus impuestos directos y de las contribuciones de empleados e empleadores al sistema de Seguridad Social. La política migratoria no puede seguir escindida de la realidad socioeconómica y de todas las personas que la componen y construyen día a día. La regularización extra-

ordinaria permitirá visibilizar a la totalidad de la población migrante residente en el Estado español. Compensar las desigualdades que presentan como punto de partida, y a la vez, garantizar los derechos laborales en condiciones de igualdad, reduciendo las situaciones de abuso y explotación. Un mecanismo habitual en muchos países, también en España. Este mecanismo de regularización extraordinaria ha sido utilizado por un importante número de países. Sólo en la Unión Europea, entre 1996 y 2008 se han realizado 43 regularizaciones en 17 estados miembros. Las más recientes se han realizado en Portugal e Italia, durante el año 2022 en plena pandemia de COVID-19. Una respuesta apoyada por el Relator Especial por los derechos humanos de los migrantes de las Naciones Unidas. En el Estado español, se han producido seis procesos de regularización desde 1978. Cuatro procesos bajo gobierno del Partido Socialista y dos bajo gobierno del Partido Popular. Una propuesta sujeta a la ley y coherente con los compromisos internacionales. Esta propuesta se limita a modificar en un artículo único, la disposición transitoria primera de la LO 4/2000. Esta disposición transitoria no tiene naturaleza orgánica y, por lo tanto, puede ser modificada por una Iniciativa legislativa Popular. La disposición transitoria original ordenaba al Gobierno establecer un procedimiento para una regularización extraordinaria, traducida en el Real Decreto 239/2000.

La propuesta de modificación mantiene el redactado original manteniendo su carácter transitorio e instando al Gobierno español realizar un nuevo procedimiento de regularización extraordinaria y sólo modifica sus fechas. Finalmente, conviene destacar que, aunque tradicionalmente las regularizaciones extraordinarias se han producido con motivo de cambios normativos, no hay ningún precepto legal que impida una regularización por otros motivos. Además, esta propuesta está muy ligada a acuerdos e iniciativas internacionales a los que el Estado español se ha comprometido. Estos incluyen la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible de las Naciones Unidas, concretamente su objetivo 10, el Pacto Mundial por una migración segura, ordenada y regular. Además del Pacto Europeo sobre la migración y el asilo. Sobre este instrumento en concreto cabe destacar que la Comisaria de Interior de la Unión Europea señaló en respuesta a una pregunta elevada al Europarlamento, negó que este pacto impida la regularización de personas migrantes, mencionando que “la regularización puede ser una respuesta política adecuada y que la UE reconoce la soberanía de sus Estados miembros para adoptar regularizaciones de personas migrantes acorde a sus criterios y competencias”.

Por todo esto, el pleno del ayuntamiento de Arrasate, propone la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERO.- Apoyar la campaña de la Iniciativa Legislativa Popular del movimiento de personas migrantes "RegularizaciónYa", para una regularización extraordinaria de personas migrantes en el Estado español.

SEGUNDO.- Apoyar el siguiente texto articulado de la proposición de ley. LEY POR LA QUE SE ESTABLECE UNA REGULARIZACIÓN EXTRAORDINARIA PARA PERSONAS EXTRANJERAS EN SITUACIÓN ADMINISTRATIVA IRREGULAR Artículo único:

Modificación de la disposición transitoria primera de la LO 4/2000, de 11 de enero, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social. Con la redacción siguiente: "Disposición transitoria primera. Regularización de extranjeros que se encuentren en España. El Gobierno, mediante Real Decreto, establecerá, en un plazo de 6 meses, un procedimiento para la regularización de los extranjeros que se encuentren en territorio del Estado español antes del día 1 de noviembre de 2021".

TERCERO.- Trasladar el Acuerdo Plenario al Movimiento Estatal RegularizacionYa.

CUARTO.- Trasladar el Acuerdo Plenario a la Presidencia del Congreso de los Diputados.

QUINTO.- Trasladar el Acuerdo Plenario a la Asociación de Municipios Vascos, solicitando que lo hagan extensible a los Ayuntamientos, invitándolos a sumarse apoyando la campaña.

Y para que conste y surta sus efectos, expido la presente, de orden y con el visto bueno.

Asociación Amerika elkartea.